



## **AURRETIAZKO KONTSULTA, BERGARAKO BARATZE EKOLOGIKOEN ESLEIPEN ETA KUDEAKETARAKO ORDENANTZARI BURUZKOA**

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoak, berrikuntzak ezarri ditu administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiterakoan; besteak beste, etorkizuneko arauak ustez ukitu ahal dituen antolakunde ordezkagarrien eta herritarren iritzia jasotzeko beharra.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazioen Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoak, 133. artikuluan hau xedatzen du:

*“1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienenek puntu hauei buruz:*

*a.- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*

*b.- Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*

*c.- Arauaren helburuak.*

*d.- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaille eta ez-erregulatzailleak.”*

Bergarako Udalaren asmoa da Bergarako baratze ekologikoen esleipen eta kudeaketarako ordenantza onartzea; non ezarriko diren Bergarako Baratze Parkea osatzen duten lursailen erabilera eta aprobetxamendua arautzeko beharrezko baldintzak eta aldi berean arautuko den baratzeetako laborantza-jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna.

39/2015 Legeak ezartzen duen prozedura betetzeko, Bergarako baratze ekologikoen esleipen eta kudeaketarako ordenantza onartu aurretik Bergarako Udalak erabaki du aurretiazko kontsulta publikoa burutzea.

### **EKIMENAREN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK**

Bergarako Udalak ordenantza honen bidez nahi du zenbait udal partzela herritarren eskura jartzea aisialdirako baratze modura erabiltzeko. Udalak modu horretan aisialdi aktiborako eta inklusiborako topagune bat sustatuko du, gizatalde ezberdinen arteko elkarbizitza eta harremanak nahiz belaunaldi ezberdinen arteko trukea bultzatzeko; eta, aldi berean, nekazaritza ekologikoari bultzada bat emateko.

Onartu nahi den ordenantza honen xedea da Bergarako Baratze Parkea osatzen duten lursailen erabilera eta aprobetxamendua arautzeko beharrezko baldintzak ezartzea eta, aldi berean, baratzeetako laborantza jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna arautzea. Halaber, baratze hauetatik ateratako produktuak saltzea debekatuta egongo da eta, beraz, norberak kontsumitzeko eta etxeko erabilerarako soilik diren produktuak bakarrik landatu ahalko dira.

### **ORDENANTZA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA**

Aurreko puntuan adierazten da, funtsean, ordenantza honen arrazoia eta beharra; hain zuzen ere, udal partzelak herritarren eskura jartzea baratza ekologikoak garatzeko eta horren ondorioz erabilera, esleipen eta kudeaketa arautzeko.

Aurretiazko kontsulta bukatu ondoren eta webgunearen bitartez egiten den jendaurrekoak ematen duenarekin, Udalak ordenantza Udalbatzara eramango du, bere onarpenerako. Ebazpen hau eman eta gero, onarpenari dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko

da, hogeita hamar (30) laneguneko epez alegazioak, erreklamazioak edota iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Jarraian, jendaurrekoan aurkeztutako alegazio, erreklamazio edota iradokizunei Udalak erantzunez behin betiko onarpena emango dio ordenantzari, hala badagokio. Alegazio, erreklamazio edota iradokizunik aurkeztuko ez balitz behin betikotzat onartuta ulertuko da ordenantza, aipatutako izapideak burutu ondoren betiere.

### **ARAUAREN HELBURUAK**

Ordenantza honen bidez udal jabetzako lurretan ezarriko diren baratza ekologikoen jarduera eta kudeaketa arautzea eta baita ere esleipenerako izapidea erregulatzea.

Ordenantzaren helburuetako bat aisialdia den heinean, baratze hauetatik ateratako produktuak saltzea debekatzea eta, beraz, norberak kontsumitzeko eta etxeko erabilerarako soilik diren produktuak bakarrik landatu ahalko direla arautzen da.

### **EGON DAITEZKEEN BESTE KONPONBIDE BATZUK, ERREGULATZAILEAK ETA EZ-ERREGULATZAILEAK**

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileko 56. artikulua eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua xedatutakoaren arabera, ordenantza hau jendaurrean erakutsiko da hogeita hamar (30) lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Jendurreko epea bukatutakoan, dagokion behin betiko erabakia hartu behar da, ebatzi behar dira aurkeztu diren erreklamazioak eta onartu egin behar da behin-behineko erabakian agertzen den ordenantzaren behin betiko idazketa, haren ezabaketa edo agertzen diren aldaketak. Baldin eta ez bada erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onartutzat joko da ordura arte behin-behinekoa zen erabakia. Behin betiko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da eta ez da indarrean sartuko harik eta argitaratze hori egiten den arte eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70-2 artikulua ezarritako epea bete arte.

Bergaran, 2021eko uztailaren 22an.